


Gabonak ulertzeko eta bizitzeko mila ikuspegi dauden moduan, beste hainbeste bide daude jolaserako egiten ditugun hautuetan. Garai hauetan, non Gabonak eta kontsumoa eskutik doazen, premiazkoa iruditzen zaigu jolasaren garrantziaz jabetuta, hainbat irizpide kontuan izatea. Ez soilik jostailuak erosteko, baita jolasari behar duen garrantzia emateko eta horrek eskaintzen dizkigun aukera anitzez jabetzeko ere. Izan ere, jolasak esanahi berezia hartzen du haurra pertsona sozial gisa hazteko eta hezteko garaian.

Dekalogo honek jostailu anitzak, ez sexistak eta jarrera bortitzak bultzatzen ez dituztenak (Jostailu belikoak) aukeratzeko irizpideak lantzeko asmoa du. Berdintasuna, errespetua, lankidetza eta talde-lana moduko balioak eta jokabideak indartzea, hain zuzen.

Ezin ahaztu, publizitateak eta, oro har, komunikabideek, sarri, gustatzen ez zaizkigun ereduak erabiltzen dituztela, estereotipoetara jotzen dutenak eta gure hausnarketa kritikoa merezi dutenak. Hausnarketa horretarako, 10 proposamen eskaintzen dizkizuegu.

Tal como existen diversas maneras de entender y de vivir la Navidad, existen otras tantas y diversas formas en la elección que hacemos de nuestros juegos y juguetes. Actualmente, la Navidad y el consumo están entrelazados, y la importancia que tiene el juego en esta época es esencial. Por ello, a la hora de su elección, nos parece indispensable tener en cuenta varios criterios: no solamente al comprar los juguetes, sino también para dar importancia al mero hecho de jugar, y para danos cuenta de la infinidad de opciones que nos ofrecen los juegos. De hecho, el jugar conlleva un significado especial para la niña o para el niño, cuando estos están creciendo y se están educando como personas sociales.

Por medio de este decálogo se quieren impulsar criterios para poder elegir juguetes diversos, no sexistas, que promuevan actitudes no violentas (juegos bélicos). Se quieren fortalecer valores y conductas tales como la igualdad, el respeto, la colaboración y el trabajo en grupo.

No podemos olvidar que por medio de la publicidad y los medios de comunicación, a menudo, se impulsan modelos que no son de nuestro gusto, puesto que caen en los estereotipos. Todos ellos merecen una reflexión crítica por nuestra parte. Para ello se describen 10 propuestas.

# Jolasa
## balioen solasa

# Jugar
## y crecer en valores



*Jolasa ikasteko aukera paregabea da, eta familia-jolasak tresna aproposak dira senideak elkarren artean gehiago ezagutzeko, maitatzeko eta laguntzeko.*

1-Haurren eskaerak modu kritiko eta koherentean aztertu. Ez esan baietz eskatzen duten guztiari.

2-Pertsona bakoitzak sentitzeko, adierazteko eta bizitzeko modu propioa eta berezia du. Pertsona bakoitza bakarra eta berezia da eta, beraz, sexualitate propioa du. Sexu aniztasunean hezi behar da haurra, etorkizunean bere beharrak modu naturalean bizitzeko, onartzeko eta bere beharrak modu zoriontsuan asetzeko. Hortaz, Pertsonen aniztasuna irudikatzen duten jostailuak aukeratu. Estereotipoak sortzen dituztenak saihestu.

3-Jolas librea eta espontaneoa sustatzen duten jostailuak bilatu. Saihestu batzuk neskentzat eta besteak mutilentzat direneko ideia transmititzen dutenak.

4-Bizitzako eremu ezberdinetan neska-mutilak modu parekidean irudikatzen dituzten liburu, jolas eta bideo-jokoei buruz galdetu. Ekidin errealitatearen zati bat soilik erakusten dutenak.

5-Neska-mutilak elkarrengana hurbiltzen dituzten joko eta jostailuak sustatu. Bizkarra eman elkarrengandik banatzen dituztenei.

6-Umeen gaitasun pertsonal eta kolektiboak garatzen laguntzen duten joko eta jostailuak aukeratu. Rolak eta jarrera sexistak zuzendu, eta pasiboak sustatzen dituztenak ekidin. Pertsonen arteko elkarrekintza eta, batez ere, elkarrekintza kooperatiboa sustatuko dutenak, bakarrik jolasteko aukera emango dietenekin konbinatu .

7-Parte hartzean eta sentimenduak garatzerakoan neska eta mutilen arteko berdintasuna sustatzen duten joko eta jolasak hautatu.

8-Arazoak modu eraikitzaile, baketsu eta sortzailean konpontzera bideratzen duten joko eta jolasak aholkatu. Saihestu jostailu eta bideo-joko bortitz eta sexistak.

9-Jostailuen koloreak aukeratu, ohiturei erreparatu gabe. Saiatu ez aukeratzen kolorea dela-eta neskentzako edo mutilentzako zuzenduta dauden jostailuak.

10-Aurreiritzietatik aldentzen diren jostailuak aukeratu, Era berean, adin bakoitzari egokitutakoak eta seguruak Halaber,ingurumena errespetatzen dutenak. Araudiak betetzen ez dituztenak baztertu, eta argibideak irakurri.

*El juego es una excepcional opción de aprendizaje, y los juegos familiares son instrumentos adecuados para conocernos mejor, querernos más y ayudarnos mejor.*

1- Analiza las peticiones de las niñas y de los niños de modo crítico y coherente. No digas que sí a todo lo que te pidan.

2.- Cada persona tiene un modo propio y especial para sentir, para expresarse y para vivir. Cada persona es única y especial, y por tanto, tiene su propia sexualidad. El niño y la niña deben educarse en la diversidad sexual, para que en el futuro puedan satisfacer y aceptar sus necesidades de modo natural y feliz. Por tanto, elige juegos que representen la diversidad de las personas. Evita aquellos que crean estereotipos.

3- Busca juguetes que impulsen el juego libre y espontáneo. Evita aquellos que transmitan la idea de que unos son para las chicas y otros son para los chicos.

4- Pregunta por aquellos libros, juegos y videojuegos que en los diferentes ámbitos de la vida expresen con igualdad a los chicos y a las chicas. Evita aquellos que solamente muestran una parte de la realidad.

5- Promueve juegos que acerquen a niñas y niños cooperando y compartiendo espacios. Evita los que refuercen la división.

6.-Elige juegos y juguetes que ayuden a desarrollar todas las capacidades y habilidades personales y colectivas. Combina juegos y juguetes que impulsen la interacción, y principalmente, la interacción cooperativa, con aquellos que den opción para jugar solos.

7.- Con respecto a la participación y al desarrollo de los sentimientos, evita los que potencian un comportamiento determinado.

8- Recomienda juegos y juguetes que solucionen los problemas de modo constructivo, pacífico y creativo. Evita juguetes y videojuegos violentos y sexistas.

9- Elige los colores de los juguetes sin convencional.ismos. Evita los juguetes que por su color se asocian a niñas o niños.

10- Elige aquellos juguetes que se alejen de los prejuicios. Asimismo, elige aquellos que sean idóneos para la edad , seguros. y respetuosos con el medio ambiente. Elimina aquellos que no cumplan la normativa; y lee bien las instrucciones.

OIARTZUNGO UDALA

Lezoko Unibertsitateko Udala

# Jolasa, balioen solasa

## Jugar y crecer en valores

